

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2013ko uztailaren 17a. IX. urtea. 2.629. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Tolosako Babarrunaren elkarteak argi gorria piztu du

Tolosaldeko babarrun ekoizleei eguraldi hotzak eta gehiegizko euriteek zuzen-zuzenean eragin die; askok oraindik ez dute erein babarruna 06



2012. urtean babarrun ekoizpenaren %70a galdu zuten. J.A. ABAIGAR



ENERIZVALZ

→ **Hurrengo urtera arte.** Alegiako Karmen jaiei amaiera eman diete, hain justu, Karmen egunean. Musika izan da protagonista nagusia egun guztian zehar. Dulzaineroek kalez kale hasitako egunari Los Tenampas hirukote mariatxiek –irudian– hartu die lekukoa. Arratsaldean, akordeoi eta trikiti doinuak izan dira, eta festak amaitzeko txintzarri hotsak izan dira nagusi herriko plazan. 06

Irene Arrrats 'Berria'-ko euskara arduraduna

## «Euskarak genero gramatikalik izan ez arren, hizkera sexista egiteko arriskua dugu»

Irene Arrratssek 'Euskara eta hizkera sexista' hitzaldia emango du Tolosan, bihar 02

## Ilusioz ospatuko du Atekabeltz gaztetxeak zortzigarren urteurrena

Bihar hasiko dituzte ekitaldiak Leitzako gaztetxeok; egun nagusia larunbata izango da, eta bazkaria eta kontzertuak dituzte, besteak beste 07

## Villabonako Garagardo Azokan 24 aukera izango dituzte zaleek

Irrintzi elkarteak antolatzen du eta hirugarren urtez jarraian prezioak mantenduko dituzte; igandera arte dago zabalik, bihartik hasita 04

## Asteasuko Santamañan bihar goizeko txupinazoarekin hasiko dira jaiak

Tranpazuloren igoerak emango die hasiera festei; Goibailarako bizilagunak, Santamaña elkarte eta Asteasuko festa batzordea dira antolatzaileak 04



HITZAK harpidedunentzat **bi sarrerak pare** ditu

### REALA-TOULOUSE Futbol partida

Uztailak 20, larunbata • 19:00etan  
Beasaingo Loinaz futbol zelaietan



Zozketan parte hartzeko: 943 65 56 95 edo [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

HITZAK harpidedunentzat  
**egunero bi pertsonentzako afaria**  
zozkatuko du

### GARAGARDO AZOKA

Uztailaren 18tik 21era  
Villabonako Txermingo Ikastolan



sarrerak

### 17. GARAGARDO AZOKA VILLABONA



hitza

# Kalean ere gaika sailka daitezke, jada, hondakinak

Joan den astean zabor ontzi selektiboak jarri zituen Tolosako Udalak, herriko hainbat gunetan

## I. Urkizu

Tolosako Udalak «birziklatzearen aldeko apustua» kalera ere eraman nahi izan du, eta ondorioz, kaleko zabor ontziak aldatzen hasi da: pasa den astean gaika sailkatzea ahalbidetzen duten ontziak jarri zituzten herriko hainbat lekutan, eta aste honetan haur parkeetan jarri dituzte.

Udalak azpimarratu duenez,

azken berrikuntza hori, ingurumen hezkuntzako Agenda 21 programan parte hartu zuten gazte txoek egindako eskaera baten ondorioa izan da; jolas parkeetan, etxean bezala, birziklatzeko aukera izateari garrantzia eman zioten gazte txoek.

Horrela, beraz, San Frantzisko pasealekuan, Foruen etorbideko Amairu parkean, Lopez Mendizabalen eta San Esteban auzoko bi parkeetan jarri dituzte ontzi berriak. Tolosako Udalak azaldu duenez, «aldaketaren lehen fasea da hau, eta aurrera begira, helburua hiriko beste hainbat gunetan ere egitasmo bera zabaltzea da».

●tolosa@hitza.info



Herriko parkeetan jarri dituzte, aste honetan, ontzi berriak. HITZA

Beti Alai

jatetxea

Garaian  
garaiko janariak  
Arraikiatan berezia

943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremertereri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

ELUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## Irene Arrarats ◉ 'Berria'-ko euskara arduraduna

Euskarak genero gramatikalik ez duen arren, Irene Arraratsek egiazko adibideekin erakutsiko du, gaur, euskarazko prentsan hizkera eta esapide sexistarik ere badela.

# «Emakume bati buruz 'jaun eta jabe' izan dela esatea zilegi ote da?»

## Itzea Urkizu

Historia ikasketak egin zituen arren, 1991. urteaz geroztik euskara zuzentzaile lanetan ari da Irene Arrarats (Hernani, 1967). *Euskaldunon Egunkaria*-n hasi zen, eta gaur egun *Berria*-ko euskara arduraduna da.

*Euskara eta hizkera sexista* hitzaldia eskainiko du, bihar, 19:00etatik aurrera, Tolosako kultur etxean.

### Zein ildo jarraituko du bihar eskainiko duzun hitzaldia?

Nire asmoa diskurtso sexistak, euskaraz ere, zertan diren azaltzea da. Badirudi, euskarak genero gramatikalik ez duenez, ez daukagula arriskurik nahi gabe horrelako irristadak egiteko, edo hizkera sexista erabiltzeko. Gero, ordea, praktikak erakusten du ez dela horrela. Beraz, horrelako gaiak landuko ditut, eta adibide batzuen bitartez jantziko dut hitzaldia.

### Aipatu duzun bezala, genero gramatikalik ez izateak, ez duesan nahi hizkuntza modu sexistan erabili ezin denik. Hau erakusteko zein adibide mota erabiliko dituzu?

Batez ere prentsan agertutako adibideak erabiliko ditut, eta batez ere *Berria*-n agertutakoak; batzuk argitaratuak izango dira, eta beste batzuk argitaratu gabek, baina idatziak. Hau da, errotatibara iritsi aurretik harrapatutakoak eta moldatutakoak izango dira. Finean, askotariko adibideak izango dira.

### Hedabideetako hizkera sexista azken hamarkadetan aldatu dela uste duzu?

Ez dut uste hala denik. Nik uste dut euskararen egitura nahiz esapideak ez direla gehiegi aldatu. Orain dela hogeitau urte bezalaxe esaten da, gaur egun, *jaun eta*



HITZA

*jabe*. Orduan, emakume bati buruz ari baldin bazara, adibidez, Josune Bereziartu, Edurne Pasaban edo beste euskal kirolari bati buruz, eta honek oso proba ona egin badu edo bere jardun horretan oso ondo aritu baldin bada, behar bada burura etorriko zaigu jaun eta jabe izan dela bere arloan. Zilegi ote da emakume bati buruz *jaun eta jabe* esatea? Gai hauen inguruan sentiberatasuna izanez gero, horrelako zalantzak uste baino maizago agertzen dira. **Lehenago ere eskaini al duzu 'Euskara eta hizkera sexista' hitzaldia?** Joan den astean ikastaro bat egin genuen Tolosan bertan, udaleko teknikarientzat.

### Harri durarrik piztu al zenuen entzuleen artean, adibideen bidez?

Egia da, askotan oso ohitua gaudela halakoak irakurtzen, eta sentiberatasun pixka bat izan behar dela, edo erreparatu egin behar dela. Baina profesionalak diren, edozein arlotakoek, erne

egon behar dute, modu komunikatiboak idazteko erne egoten diren gisa berean; horrelako gaieetan ere izan behar dute arreta. Egunkaria irakurtzen duten zenbait irakurle, agian ez dira ohar-tuko, baina horretako ari garen profesionalok ardura bat daukagu, eta gure testuak ikuspuntu honetatik ere zaindu nahi baldin baditugu, ezinbestekoa zaigu arreta.

### Azkenik, nori zuzendua izango da, besteak beste, hitzaldia? Zein entzule mota espero duzu?

Egia esan, ez dut ideiarik ere. Baina gai hauek zaindu nahi dituen jendea izango dela pentsatzen dut. Horrelako jendea espero dut gainera, interesa duena, eta nora jo edo zer irakurri oso ondo ez dakiena. Era berean, jendea bere lanean edo bere egunerokoa, ikuspuntu honetatik, gauzak errazago egin ahal izateko zenbait gako hartzera etorriko dela pentsatzen dut.

## ↓ Iragarki laburrak

### GALDUTAKOAK

**Urrezko katea.** Astelehenean, uztailaren 15ean, urrezko katea galdu zen Alegian. Zer bait jakin dezakeen edonork, mesedez deitu dezala 647 31 56 09 tele-

fono zenbakira. Saritua izango da.

### LAN BILA

**Etzeko lanak.** Goizetan, etzeko lanak egin edota haurrak zain-

tzeko, esperientziadun emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea dauka. 943 696882 / 606 521992

**Hauxe Garbitasunak.** Garbiketa orokorrak. Aurrekontua eskatzeko, deitu 681 15 24 94ra.

Etxea bizirik mantentzeko zazpi urteko borrokaren ondoren, laugarren Bonberenea Sutan jaialdia antolatuko dute tolosako gazteek, aldarrikapen hori gehiago egin behar ez izateko esperantzarekin.

# Azkenekoa izango delakoan...

Mikel Iraola Tolosa

**Z**azpi urte igaro ditu Bonbereneak etxea bere horretan mantentzeko borroka eginez. 2007. urtean San Esteban-Laskorain Goikoa proiektuak mila etxebizitza eraikitzea aurreikusten zuen, sormenari eta kulturari espazioa utzi gabe. Hori dela eta, etxeak zutik irauteko errebindikatzen zuen Bonberenea Sutan izeneko kanpaina abiatu zuten gazte tolosarrek.

Kanpaina horren barnean bi urte behin izen bereko musika jaialdia antolatu izan dute. Besteak beste, gaztetxeko futbol zelaiko eszenatokitik Delorean, Deabruak Teilatuetan, Willis Drummond, Kerobia, Lisabó, Zea Mays, Anestesia, Ama Say, Doctor Deseo, Anari, Atom Rhumba, Gose, Berri Txarrak, Matxura edo Glaukoma bezalako taldeak pasa dira.

Aurten, kontzerturik antolatzeko egokitzan ez den arren, etxea zutik mantentzeko «bide onean» dagoela ikusita, Bonberenea Sutan jaialdiaren laugarren edizioa antolatzeko erabaki dute gazteek, aldarrikapen hau burutzeko egiten den azkenekoa izatearen esperantzarekin.

## Puntako taldeak

Jaialdi honi merezi duen amaiera emateko, punta-puntako taldeak bilduko dira datorren abuztuaren 31n Bonbereneako futbol zelaian.



lazio Bonberenea Sutan jaialdian Glaukoma tolosar taldeak parte hartu zuen. BONBEREÑA

Zuloak taldeak emango die hasierako kontzertuei, 20:00etan. Fermin Muguruzak, taldearen izen bereko film dokumentala grabatzeko sortu zuen, eta orduz geroztik kontzertuak eman eta eman ari da hirukotea.

Ondoren, Anai Arrebak taldearen txanda izango da. Pasaitarrek beren azken diska, *Dantzagarria*

*goa*, taularatu dute, rock, post-punk eta blaxplotation doinuak uztartuz. Gero, Bad Sound System taldeak Hip Hop eta Reggae doinuak jarriko ditu. Hauek ere, azken lana, *Aldaketa* izeneko, aurkeztuko dute.

Fermin Muguruza Kontrakanterekin izango da gaueko laugarren eta azken kontzertua. Irundarrak

Kontrakantxa taldea osatu zuen beste zortzi musikarirekin batera eta mundu osoan zehar hara eta hona ibili ostean, *No More Tour 2013* izeneko birari amaiera emango dio Tolosan. Eta ez birari soilik, izan ere, Muguruzak ibilbide musikalera ere bere horretan utziko du.

Festa erraldoiari amaiera emateko, Ziribulio Sound DJ tolosa-

## ↓ Datuak

### BONBEREÑA SUTAN 2013

- **Data.** Abuztuak 31.
- **Lekua.** Bonbereneako futbol zelaian, eta ondoren, barruan.
- **Egitaraua.** Zuloak, Anai Arrebak, Fermin Muguruza Kontrakantxa, Bad Sound System eta Ziribulio Sound.
- **Ate irekiera.** 19:00etan.
- **Kontzertuen hasiera.** 20:00etan.
- **Sareren prezioa.** 15 euro.
- **Sareren salmenta.** Abuztuaren 1etik aurrera, Bonberenean bertan, edo Orbela, Denak eta Mescal tabernetan (Tolosan).
- **Informazio gehiago.** Webgunean ([www.bonberenea.com](http://www.bonberenea.com)) eta Facebookeko orrialdean ([www.facebook.com/bonberenea.sutan](http://www.facebook.com/bonberenea.sutan)).

rrak arituko dira etxearen barnean goizaldera arte, Rap, Reggae eta Dancehall doinuak eskainiz. Monsieur lecrêpe Mc ere bertan izango dela jakinarazi dute Bonbereneako kideek.

Jaialdirako sarrearak, abuztuaren 1etik aurrera jarriko dira salgai Bonberenean bertan, eta Orbela, Denak eta Mescal tabernetan. Aurten, ez da internet bidez sarrearak erosteko aukerarik. Prezioa, berriz, bakarra izango da, bai aurretik erosita, baita egunean bertan erosita ere: 15 eurokoa.

### Aldarrikapenak baztertu

Jaialdia amaitzean, denboraldi baterako aldarrikapenak alde batera utziko dituzte gazteek: «espero dugu inoiz errepikatutako behar ez izatea. Garaipena geroz eta gertuago daukagu», diote.

## Gutuna

## Metxeroak gordeko ditugu

Ziur asko, pertsona asko harririk gabe Tolosako Bonberenea gaztetxeko kideon aldarrikapen berri honen eta 2013an ere Bonberenea Sutan jaialdia ospatuko dela jakitearekin. Izan ere, badakigu orain arte jaialdi hau bi urte behin ospatu izan dela gaztetxearen futbol zelaian. Aurtengo edizioa, berriz, 2012an burututako 3. ediziotik urtebete ere igaro ez denean iragartzen ari gara, orain arte jarraitutako ohitura hautsiz. Zalanharik gabe, gaztetxea kokatzen den San Estebango auzoaren etorkizuneko planen aldaketak eragin du erabaki hau.

Komenigarria da Bonberenea Sutan jaialdia testuinguru egokian kokatzea. Musika jaialdia bera eta orain arte gauzatutako edizio guztiak, 2007an martxan jarritako kanpaina zabalago baten ekintzarik nabarmenenak eta esanguratsuenak izan dira. Izan ere, bertatik

pasa dira hainbat eta hainbat musika talde, guztiak dirurik jaso gabe eta Bonberenearen etorkizunaren alde. Baina Bonberenea Sutan kanpaina hori baino askoz zabalagoa da.

2007an jarri zen martxan kanpaina hau, garaiko Tolosako Udalak San Esteban auzoarentzat aurreikusitako hirigintza plana zela eta, orain arte Tolosak ezagutu duen hirigintza planik handiena. San Esteban-Laskorain Goikoa bezala ezagutzen zen plan hark 1000 etxebizitza gora eraikitzea aurreikusten zuen eta, beste zenbait gauzen artean, Bonberenearen etorkizuna zuzenean mehatxatzen zuen. Ordura arte egindako lana eta garatutako azpiegitura osoa ezerezean utzi ahal izateaz gain, gaztetxearen parte hartzen dugun printzipioen aurka zihoan auzo berri bat eraikitzea zen garaiko udalaren nahia. Bonbereneak

argi azaldu zuen gutxi batzuen interes ekonomikoak defendatzeko hirigintza proiektu haren inguruan zuen iritzia, besteak beste gaztetxearen 13. urteurrenko aldarrikapenean.

Bonberenea Sutan, beraz, gaztetxearen etorkizunaren mehatxu hauei aurre egiteko abiarazitako kanpaina bat da, dagoeneko sei urte luze egin dituena eta bai Tolosako eta baita Euskal Herriko txorri ezberdinetako milaka pertsonen babes jaso duena. Horren adibide dira orain arte proiektuari babesera erakusteko bildutako sinadura kopurua (10.000 sinaduratik gora, musika talde, kolektibo eta pertsonen artean) eta 2010eko San Joanetan Tolosako kaleetan zehar igarotako kalejira masiboa.

Hala ere, jakina da ia ezer ez dela betiko eta egoerak aldatu egiten direla denboraren edota jendearen indarraren poderioz. San Esteban auzoaren etorkizunak goitik beharako aldaketa bizi izan du azken hilabeteetan. Tolo-

sako Udalaren eta auzoko zein Tolosako beste puntu batzuetako hiritarren artean abiatutako prozesu parte hartzaile eta demokratiko baten bitartez, San Esteban auzoak etorkizunaren nolakoa izan nahi duen erabaki du, edozein indar politikoren inposaketatik at eta auzokideen parte hartzea eta iritzia kontutan izanda. Bonbereneako piromanook parte hartu dugun prozesu honetan argi eta garbi geratu da San Esteban auzoko hiritarrek ez dutela eurentzat San Esteban-Laskorain Goikoa bezalako hirigintza planik nahi.

Auzotarrek, oso bestelakoa den planteamendu baten alde egin dute. Auzo lasai, berde eta seguru bat izango dutela erabaki dute, eta baita ere Bonberenea auzo horretan integratua egongo dela. Hau dela eta, piromanook San Esteban auzoaren babesera eta zilegitasuna daukagula nabari dugu. Izan ere, herritarrek erabaki dute zein auzo mota izan nahi duten etorkizunean, eta auzo horretan

Bonberenea dagoen tokian egongo dela erabaki da.

Hau guztia dela eta, orain arte martxan egon den Bonberenea Sutan kanpaina indargabetzea erabaki dugu, etorkizunarekiko ditugun aurreikuspenak erabat aldatu direla ikusita. Oraindik ezin dugu ziurtatu gaztetxearen etorkizuna erabat bermatu denik edota 2013ko Bonberenea Sutan jaialdia azkena izango denik, baina hiritarren hitza errespetatua izango delakoan gaude, batez ere udalak aurreko proiektua atzera bota ostean hirigintza planik nahi.

Ez ditugu botako baina denboraldi baterako metxeroak gordeko ditugu. Espero dugu inoiz atera behar ez izatea eta Bonberenea Sutan 2013 azkena izatea. Ezin dugu esan garaipena lortu dugunik, baina bai inoiz baino gertuago daukagula. Bitartean, sormenaren suhiltzaileen aurrean izan piromanoo eta zabaldu sua

■ **Bonbereneako kideak.**





Arrakasta handia lortu du Amasa-Villabonako Garagardo Azokak. A. IMAZ

## Bihartik aurrera garagardorik hoberena dastatzeko aukera izango da Villabonan

Igandera arte izango da zabalik XVII. Garagardo Azoka Jesusen Bihotzaren Txermin ikastetxeko jolastokian

Mikel Iraola Amasa-Villabona

Bihar hasi eta igandera bitarte Garagardo Azoka izango da Amasa-Villabonan, Jesusen Bihotzaren Txermin ikastetxeko jolasto-

kian. Gipuzkoako garagardo azokarik zaharrena da Irrintzi elkarteak antolatzen duena. Lehenengo azoka Intxaurrendokoa izan bazen ere, gaur egun zaharrena da Villabonakoa. Aurten 17. aldiz antolatu dute, eta inguruan arrakasta izatea lortu du.

24 garagardo mota dastatzeko aukera izango da. Gutxi gorabehera, 15.000 litro inguru izango dira aurreikusitakoak.

Edariaz gain, jateko ere aukera zabala izango dute bertaraten di-

renen: *Bratwurst* eta *Frankfurt* motako saltxitxak, haragi pastela, alemaniar entsalada, entsalada freskoa, Nabarrito erara egindako patatak, muskuluak tomatearekin, batxuri erara egindako langostinoak, eta nola ez, hain famatu bilakatu den ukondoa. Postreerako, berriz, Idiazabal gazta, eta gazta mota berarekin egindako gazta tarta izango dira.

Hirugarren urtez jarraian prezioak mantenduko dituzte krisi garai honetan ahalik eta jende gehien gerturatzeko asmoz. Horrenbestez, botilak hiru eurotan salduko dira, eta pitxarrak 3,5ean.

Gozamenerako aukera ere izango da, izan ere, hainbat emanaldi izango direla aurreratuta dute antolatzaileek, baina oraindik horretan lanean dihardute.

Guztia ondo atera dadin, ehunka pertsonen laguntza ezinbestekoa da; egunero, 80 eta 100 pertsona bitarte arituko dira laguntzen. Era berean, aurreko urteetako arrakasta bera errepikatzearekin pozik geratuko liratekeela aitortu dute.

## Asteasuko Santamaña auzoan, jaiak hastear

M. Iraola Asteasu

Santamaña Elkarateak, Goiballako bizilagunek eta Asteasuko festa batzordeak antolatuta, Tranpazuloren igoerarekin hasiko dira bihar, 10:30ean, Santamaña auzoko jaiak. Egun horretan, herri kirolek, eta bertsolari eta trikitilariak izango dute protagonismoa.

Ostiralean, berriz, herri afaria izango da. Helduek 25 euro ordaindu beharko dituzte bertara joateko, eta haurrek 15. Izena emateko epea bihar arte izango da zabalik, eta 676597060 edo 686788260 telefono zenbakietara deituta egin daiteke. Igandean, auzotarren arteko

desafioa izango da, eta Tranpazuloren jaitsierarekin amaituko dira festak.

### 58 korrikalari igandean

Bestalde, 58 korrikalari hartu zuten parte igandean jokatu zen XIII. Santamaña Kros Igoeran, horietako 17 asteasuarrak. Emakumezkoetan azkarrena Elena Loyo izan zen, 33:13 segundo eginez, Aitziber Ibarbia bigarrenak baino minutu eta erdi lehenago. Hirugarren Nerea Amilibia izan zen. Gizezkoetan Hassan Aitchaou izan zen azkarrena. Bigarren eta hirugarren Raul Gomez eta Jose Luis Delgado izan ziren.



Tranpazuloren igoerak emango die hasiera jaiak. A. IMAZ

### ↓ Egitaraua

#### UZTAILAK 18, BIHAR

- 10:30. Festen hasiera, Tranpazuloren igoerarekin eta txupinazoarekin.
- 11:00. Meza nagusia, eta ondoren hamaiketako.
- 13:00. Herri kirolak bertako gazteekin. Ondoren, Iruzu eta Peñagarikano bertsolariak, eta Izer, Narbaiza eta Lutxurdio trikitilariak.
- 17:30. Kalejira.
- Gauean. Izer, Narbaiza eta Lutxurdio trikitilariak.
- Goizaldean. Txokolate jatea.

#### UZTAILAK 19, ETZI

- 21:00. Herri afaria.
- Gauean. Laja II eta Narbaiza trikitilariak.

#### UZTAILAK 20, LARUNBATA

- 16:00. Santamaña XVIII. Mus Txapelketa.
- 16:30. Haur jolasak, eta ondoren toka txapelketa.
- Gauean. Astiasaran Anaiak eta Leire trikitilariak.

#### UZTAILAK 21, IGANDEA

- 10:00. Andazarrateko XXIX. igoera (federatu gabeko txirringularientzat).
- 11:30. Meza nagusia, ondoren, Azurmendi eta Olasagasti aizkolariak, eta Aimar Irigoien harrijasotzailea, Laja eta Mikel trikitilariak alaiturik.
- 18:00. Auzoko *Desapiyua*: bi herritar talde elkarren aurka lehiatuko dira, 20 minutuz 700 kiloko harriarekin.
- Afalaurretik. Tranpazuloren jaitsiera.
- Gauean. Laja eta Mikel trikitilariak.

**Egin HITZAREN HARPIDEDUN**  
ekainaren 1etik uztailaren 22ra arte, ETA JASO:

**Barrenetxe**  
www.barrenetxe.com  
sasoiko barazkien otzara

Harpidedun egiten diren guztien artean

**Orduñako Aisia hotelean, bi pertsonarentzako asteburu baterako egonaldia ZOZKATUKO DUGU**

Harremanetarako:  
902 82 02 01  
harpidetza@hitza.info

hitza

**Mauka berria** GAURKO ESKAINTZA

**Sagardoaren herrian sagardotegi menua 22 euroregatik**

IPINTZA SAGARDOTEGIA  
Ipintza baserria - Santio zaharra  
ASTIGARRAGA 20116 - GIPUZKOA  
Tel.: 943-55 86 37  
ipintza@ipintza.com • www.ipintza.com

Prezioa **22€**

www.mauka.eu

berria taldea

Sei egunen ostean, Alegiako jaiak atzo amaitu ziren; Karmen eguna dultzainen erritmora hasi zuten, eta mariatxi eta trikiti doinuak alaitua izan zen eguna.

# Txintxarria erreta, bukatu da

**Eneritz Maiz** Alegia

**B**ukatu dira jaiak. Beste urte batez, Karmen jaiak agurtuz erre dute txintxarria, Alegian. Pasa den ostegunean hasi zituzten festak jai alternatiboekin. Hurrengo egunean lehertu zen udaltxeko balkoitik botatako suzuria, eta atzo gauerdia bitartean, umore ona, musika, jan-edana eta parranda izan dira protagonista.

Atzo, herriko festetako egun handia izan zen: Karmen eguna. Giroarte dultzaina taldeak esnatu zuen herria goizean goi. Herriko kale eta auzoetatik barrena ibili ziren, eta herritarrek leiho eta balkoietatik egin zieten harre-

Gaztetxoenek, aldiz, kirola eginez hasi zuten eguna. Infantil eta alebin mailako 3x3 Saskibaloitxapelketa jokatu zen, eskolako patioan.

Eguedian, Los Tenampas hirukote mariatxiaren emanaldia izan zen herriko plazan. Eguraldiak asko lagundu ez arren, jende ugari elkartu zen plazan, mexikar doinuak entzun eta abestera. Ordubetez, adin ezberdineko herriarrak eta kanpotik gerturatutakoak izan ziren.

### Musikaz beteta

Arratsaldean txikienak izan ziren protagonista. Jolasez gain, merienda ere izan zuten plazan. Eguneko beste protagonista musika izan zen.



Los Tenampas hirukote mariatxiak, mexikar doinuak ekarri zituen; jende asko elkartu zen. E. MAIZ

Egunean zehar estilo askotako musika izan zen, eta kasu honetan, Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestraren emanaldiaz gozatu zuten alegiarrek.

Jaietan hutsik egiten ez duen hitzordua izaten da Zahagi ardoa, eta jaien azken egunean plazan egin zuten. Ondoren, trikiti doinuek hartu zuten lekukoa. Herriarrak dantzan jartzearen ardura Kupela taldeak izan zuen.

Gauerdian, ordea, jaien amaiera iragarriz txintxarri hotsek hartu zuten lekukoa.



3x3 Saskibaloitxapelketa jokatu zuten. E. MAIZ



Giroarte dultzaina taldeak goizean goiz zeharkatu zituen Alegiako kaleak. E. MAIZ

**17. GARAGARDO AZOKA**  
17ª FERIA DE LA CERVEZA  
Uztailaren 18tik - 21era del 18 al 21 de julio  
Onduena 18.00etatik - 1.00etara  
Martes 18.00h. a 1.00h.

**VILLABONA**

Sartu gure webgunean

**hitza** info

tolosaldea.hitza.info

**info**

**LIKIDAZIOA ERREFORMEN GATIK**

Euskal Herria, 22  
• IBARRA •  
943 67 02 44



Bolo-bolo ibili da aurten, uda hasierara arteko eguraldi eskasa. Herritarren aisialdiaz harago, ordea, hotzak eta gehiegizko euriteek zuzen-zuzenean eragin diete, benetan kezkatu dauden Tolosaldeko babarrun ekoizleei

# Erein gabeko hazirik ezin jaso

## Izteia Urkizu

**Z**inez urte txarra izan zen iazkoa, babarruna ekoizleentzat; urte urteko bilketa datuei begiratuta, sekulakoa izan zen beherakada. 2013. urtea, ordea, ez doa bide hobetik, eta Tolosako Babarrunaren elkarteko nekazariak piztu dute, jada, kezka argi gorria.

Urrun dira oraindik, babarrunak biltzeko aste horiek, baina horrek ez ditu nekazariak lasaitzen. Azken hilabeteotan herritarren hizketaldiak, telebistako albistegiak nahiz egunkarietako azalak hartu dituzte eguraldi hotzak eta euriak, eta babarruna ekoizleen egunerokoari zuzenean eragin dio horrek.

Horrela, orain arte egindako hotzaren eta euriaren ondorioz, ekoizle askok ez dute, oraindik, babarrunarekin erin: «Ausartak izan eta erin dutenek, berriz, bitan edo gehiagotan erin behar izan dute, eguraldi hotz eta bustiarekin ez baitira babarrunak erntenzen», azaldu dute babarruna ekoizleek.

Dinamika honek, nekazarien lana 45 egun inguru atzeratzea ekarri du soro jardunari dagokionez, eta noski, bilketa ere atzeratu egingo zaie aurten. Hori nahikoa ez, eta udazken euritsuaren egingo balu, kalteak «izugarriak» lirirateke: «Tolosako babarruna bezozalea da, eta oro har arazorik izaten ez den arren, aurtengo honen marka guztiak puskatu ditu».

Zehazturiko epeez kanpo ibiltzeak, eta soroko lanetan «ezinean» aritzeak, hainbat esparrutan kalteak ekarriko dizkie ekoizleei, eta besteak beste, denboran eta dirutan nabaritu dituzte eraginak, diotenez.

Batetik, babarruna berriro erin behar baldin bada, lurra berriro mugitu behar izango dituzte, eta hazietan diru gehiago erabili beharko dute ondorioz; ha-



Pasa den ekainean Tolosako ikasleekin erin zituzten haziak, urteroko moduan. I. URKIZU

## ↓ Bildutakoa

Urtea	Azalera	Kiloak
2010	28 ha	34.273
2011	28 ha	39.277
2012	20,5 ha	9.663*

\*Aurtengo urtarilaz geroztik bezeroak hornitu ezinik dabilza ekoizleak, izako galeren ondorioz.

laber, landarea ez da behar bezela hazten eta garatzen. Arazo hauengatik guztiengatik, hainbat baserriarrek etsi dute jada, eta aurtengoz ez dute babarruna gehiago ereingo; bide beretik, beste askok azalera gutxiago erabiliko dute babarruna landatzeko, badaezpada ere.

Izan ere, ekoizleek ohiko kostuaren bikoitzari aurre egin beharko diote aurten, eta kontuan izan behar da, babarrunaren prezio osoko kostuaren %20a edo %25a ereitearena izaten dela.

Ekoizleen lanari zuzenean eragiten dieten gorabeheraz gain, komertzialki ere kalte nabarmenak izango dituztela uste dute nekazariak, izan ere, «bezeroek beste bide edo alternatiba batzuk aurkitzen dituzte; berriro ere sare komertziala berreskuratzea zail suertu daiteke, eta honek gainera, etorkizunean ondorioak izan ditzake, landatzearen garapenean».

## Iazko bidea, are beltzago

2012. urtean, babarrun ekoizpearen %70a galdu zuten Tolosaldeko nekazariak, eta iaz ere babarrunari kalte egiteko baldintza guztiak bete ziren: «Hotz egin zuen udako lehen zatian, neurririk gabeko beroa eta eguraldi lehorra bigarreanean, eta etenik gabeko euria uda amaieran».

Klimaren egoera halakoa izanda, 20,5 hektarea bakarrik erin zituzten iaz, Tolosako Babarrunaren elkarteko ekoizleek, eta guzti-

ra, 9.663 kilo bildu zituzten. Hau aurreko bi urteekin alderatuz gero, ordea, galerak nabarmenak dira: 28 hektarea inguru ereinda, 34.273 kilo bildu zituzten 2010ean, eta 39.277 kilo 2011n. Horrela, «bezeroei zerbitzu ona eskaini ezinik» dabilza ekoizleak, urtarilaz geroztik.

Egoera honen aurrean, Tolosako Babarruna elkarteko ekoizleek beren kezka ezagutarazi nahi izan dute. Batetik, eta Ibarra piperrekin batera, Tolosako babarruna Gipuzkoan nekazaritza esentiboa egiteko aukera ematen duen produktu bakanetako dela nabarmendu dute.

Horrez gain, ordea, nekazari-

tzan, ostalaritzan nahiz turismoan Tolosako babarrunak duen eragin nabarmena ere gogoan izan dute: «Guztira 54 familia edo ustialeku daude, Tolosako Babarruna elkarteari lotuta, eta hauen ekoizpenak, Gipuzkoan biltzen den babarrunaren %50 edo %70a osatzen du». Halaber, elkartetik kanpo ere beste 500 ustialeku inguru leudeke Tolosaldean.

Azkenik, «Tolosako Babarruna bertako kulturaren erroturiko jarkia» dela gaineratu dute ekoizleek, eta gogora ekarri dute asko direla, Euskal Herrira etorri eta babarrunak dastatzen dituztenak, nahiz etxera bueltan opari gisa eramaten dituztenak.

## PSE-EEK diru laguntzak nahi ditu ekoizleentzat

Gipuzkoako Foru Aldundiak galerak konpontzeko asmorik ote duen jakin nahi izan dute, PSE-EEko kideek

### I. Urkizu

Tolosako babarrunaren ekoizleen denboraldi txarra medio, PSE-EEK diru laguntzen inguruan informazioa eskatu dio foru aldundiari, Batzar Nagusietan.

Maria Jesus Egidok, besteak

beste, ekoizleen kezka izan du zipide, eta Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo foru diputatuari eguraldiak eragindako kalteei aurre egiteko beharra azpimarratu dio.

Gainera, Egidok, Tolosako Babarruna babestu eta ezagutaraztearen garrantzia ere nabarmendu du, «kalitatezko produktua, Tolosako, Gipuzkoako eta geurea» izateaz gain, babarruna Tolosako gastronomiaren eta izearren bereizgarrietako bat dela esanez.

• [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

**Patxi Amantegi**  
Tolosaldea Txukuneko Bozera mailearekin  
**ZUZENKO ELKARRIZKETA**

Uztailak 18,  
osteguna  
20:00etan

**Bidali zure galderak:**  
[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)  
edo  
@hitzatolosaldea



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza**

Ikusi [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info) edo [www.galtzaundi.com](http://www.galtzaundi.com)  
webgunetan edo entzun **txolarre irrati**an

# Atekabeltz gaztetxearen zortzigarren urtemugan, sorrerako ilusio berarekin

Bihar hasiko dituzte ekitaldiak, eta hilaren 26ra arte luzatuko dira; hasteko erremonte tailerra izango dute

**Iñigo Terradillos** Leitza

Zortzigarren urteurrena du aurrean Atekabeltz gaztetxeak, eta gazte asanbladako kideek hamaitzako ekitaldi antolatatu dituzte, datozen egunetarako, urtemuga behar bezala ospatzeko.

Hasteko, *zesta suabizante* tailerra izango dute bihar arratsaldean. Tailerraren nondik norakoak ulertzeko, nahikoa da eskola garaietara itzultzea. Izan ere, gazte asanbladatik azaldu dutenez, soinketan erremonteak egiten zizuten leungarri potoekin, eta tailer horretan ere hori egingo dute. Saski horiekin jokatu dute larunbat eguerdian txapelketa frontoian. «Ahalik eta parte hartzaileena izatea nahi dugu, horregatik, nahikoa da tailerrera joatea, ala bestela larunbatean frontoira, guk saskiak eramango ditugulako».

Bestalde, urteurren afaria etzi egingo dute, gaztetxean bertan. «Parrillada egingo dugu, tertulia giro lasaia egongo delarik». Bada, bertara joateko alde aurretik izena eman beharko da Torrean edo gaztetxean bertan.

## Urteurren eguna

Larunbata izango da egun handia, urteurren festa ospatu du tena, hain justu. Txupinazo eta guzti hasiko dute eguna, eta txapelketaren ostean, bazkaria egingo dute. Kasu honetan ere, txartelak eskuratu beharko dira bazkariara joan ahal izateko, eta aukeran izango da bazkarirako soilik edota bazkari eta kontzerturako bonua eskuratzeko.

Bazkalostean, karrito joku poto mitikoa egingo dute. Izen hori ematen diote gaztetxean duten



Atekabeltz Eguna ospatu zuten maiatzean. ASIER IMAZ

## ↓ Egitaraua

### UZTAILAK 18, OSTEGUNA

■ **18:00.** *Zesta suabizante* tailerra.

### UZTAILAK 19, OSTIRALA

■ **Gae**an. Urteurren afari parrillada izango da gaztetxean. Afarian parte hartu nahi dutenek Torrean edo gaztetxean eman behar dute izena.

### UZTAILAK 20, LARUNBATA

■ **12:00.** Txupinazo eta *erremonte suabizante* txapelketa azkarra plazan.

■ **14:30.** Bazkaria: zizka mizkak, greziar entsalada, pesto pasta pesta, postrea, kafea eta kopa.  
■ **Arratsaldean.** Karrito joku poto mitikoa herriatik barrena.

■ **19:30.** La Chula Potraren rap kontzertua gaztetxean.

■ **Ondoren.** Luntxa.

■ **23:00.** Gose taldearen kontzertua.

### UZTAILAK 25, OSTEGUNA

■ **19:30.** Masaje tailerra.

### UZTAILAK 26, OSTIRALA

■ **22:30.** Film laburren lehiaketa. Proiektzioa eta sari banaketa.

karroarekin poteoa egitera irte ten direnean. Karroan bertan musika, jokuak eta barra bera eramaten dituzte.

Iluntzean rap doinuak izango dituzte La Chula Potra Iruñeko rap kantariarekin, eta gae an, Gose taldea ariko da. Tar tean jatekoa ere emango dute.

Datorren asterako bi ekitaldi utzi dituzte. Ostegunean leitzar gazte baten eskutik masaje tailerra izango da, eta ostiralean, film laburren lehiaketaren proiektzioa eta sari banaketa. Laugarrenez egingo dute aurten, eta gazte

asanbladatik esan dutenez, «oso jendetsua izaten da, eta giro polita sortzen da». Parte hartu nahi dutenek egunean bertan eman beharko dute lana, edo bestela *atekabeltz@gmail.com* helbidera bidali. Gehienez 15 minutuko iraupena izan behar dute, eta ikusleen artean bozka gehien jaso ten duenak saritxoa jasoko du.

### «Balantze baikorra»

2005eko udan sortu zuten gaztetxea, uztailaren 20an, hain zuzen. «Ilusio handiarekin» hasi ziren, eta urte hauek guztietaz balan-

tze «oso baikorra» egin dute gazte asanbladatik, «herriarentzat aisirako eginiko kultur eskaintzaren gatik, besteak beste». 17-30 urte arteko 20 lagun inguru dabilta egun gazte asanbladan, eta horietatik batzuk sorreratik mantendu direnak, eta beste batzuk sartzen joan direnak dira. «Urte askotan hasieratik egondako jendea izan da, baina, azken 2 edo 3 urtetan jende gaztea sartu da, ilusioz beterik, eta lan egiteko gogotsu. Beraz, alde horretatik ere oso pozik gauden», azaldu dute gazte asanbladatik.

## Aranalderen euroaginduaren inguruko ebazpena atzeratu dute

**I. Terradillos** Ibarra

Jokin Aranalde iheslariaren kontrako euroagindu eskaeraren inguruko erabakia atzo eman behar zuten jakitera Paueko Dei Auzitegiko Instrukzio Ganberak, baina irailaren 10era atzeratu duela jakinarazi dute.

Aranalde ekainaren 24an atxilotu zuen poliziak Heletan, Nafarroa Beherean. Uztailaren 9an igaro zen epailearen aurretik, eta ibartarraren abokatuak defentsa prestatzeko denbora gehiago eskatu arren, epaileak uko egin zion eskaerari eta prozedurak aurrera jarraitu zuen.

## → Laburrak

### Saharar herriaren aldeko Ziklo Indoor Topaketa

**LEITZA** ▶ Leitzako saharar herriarekin elkartasun taldeak saharar herriaren aldeko II. Ziklo Indoor Topaketa antolatatu du larunbaterako. Leitzako plazan izango da, 16:00etan hasita. Parte hartu nahi dutenek 649 552 368 (Jabier) telefono zenbakira deitu beharko dute izena emateko. Horretarako bihar izango da azken eguna.

### Filma ikusteko aukera, bihar, herriko plazan

**IBARRA** ▶ Udalak antolatuta, aurreko urteetan egin moduan, Udako Zinema ari dira egiten uztaileko ostegunetan, San Bartolome plazan. Bada, bihar, saioa hirugarrena izango da, eta gaztetxoei zuzenduriko filma emango dute. Emanaldia 22:00etan hasiko da, eta herri-tar oro dago gonbidatuta.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarritako Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



24°  
18°

GOIZA	EGUZKIA
ARRATSALDEA	EGUZKIA
BEROENA	25°
HOTZENA	18°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



**Galtzaundi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Agenda

### GAUR

#### DEIALDIK

■ **Amasa-Villabona.** Jaiak ate joka datoz, eta hilaren 24ean izango den herri afariko eta 30ean egingo den Etxeondoko bazkariko izen emateen berri eman dute. Herri afarian izena hilaren 19tik 23ra eman beharko da, 08:00etatik 11:00etara, kulturako bulegoan. Aldiz, bazkarian apuntatzeko aukera hilaren 22tik 24ra izango da, ordu eta leku berean.

■ **Ikaztegieta.** Herriko jaietako bazkari eta afarietako txartelak salgai jarrita daude Ostatu eta Toki-Alai tabernetan.

## Farmaziak

### GAUR

■ **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.  
■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren 52. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

## Irudia Amasa-Villabona



## ZAKUR KAKEN ARAZOA

Herri txikietan nahiz handietan, guztietan dago txakur kakekin arazoa. Jabe askok, beren zakurren kakak ez dituzte jasotzen, kale, parke eta zelai asko zikinduz. Arazoari irtenbidea eman nahian, Amasa-Villabonako Udalak, edukiontzi berriak jarri ditu herriko kaleetan. HITZA

## Agurak



### Zorionak!

**Garazi Alkain.** 7 urte. Zorionak etxekoan partetik, eta bereziki osaba Joseba eta Aratzek.

### AGURRAK

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

●●●● agurak



## XVII. HITZA Udako argazki lehiaketa

Bidali zure argazkia  
[thargazkiak@hitza.info](mailto:thargazkiak@hitza.info)  
helbidera!



Sari mundialak!

## Publierreportajea



Dendako material guztia, 5, 10, 15 edo 20 eurotan dago salgai. HITZA

Ibarrako Zugasti dendan aldaketak egitera doaz, eta irailera bitartean dendako material guztia, arropa eta osagarriak, kitapen salmentan jarri dituzte.

## Diseinu tailerra izango du irailetik aurrera Zugastik

Zugasti dendak urteak daramatza Ibarra. Ile apaindegia, drogeria eta azken hamabi bat urteetan arropa eta osagarrien denda da. Antxon Urrestarazu da arduraduna, eta erronka berri bat du esku artean. Irailetik aurrera, denda bitan banatzeko asmoa du. Alde batetik, orain bezala salmentari bideratutako zatia izango du, hau da, arropa eta osagarriak salduko dituzte. Beste zatian, ordea, diseinu tailerra jarriko du.

Denda irailerako eraberritu behar dutenez, orain artean dendan duen material guztia kitapen salmentan jarri du. Arropa eta osagarriak, 5, 10, 15 edota 20 eurotan eskura daitezke. Neska eta mutilen arropa dago eskuragarri. Eskaintza hauek iraila bitartean mantenduko ditu Urrestarazuk.

Behin berritze lanak eginda, orain bezala, material berria jarriko dute salgai Zugasti dendan. Baina dendaren beste zatian, diseinu tailerra izango du. Zehazki ez daki noiz jarriko duen martxa, baina iraillean zehar izango dela argitu du Antxon Urrestarazuk.

Honez gain, gaur egun ere, ba-

naketa zerbitzua egiten dute materiala beste dendei salduz, eta jarraitzeko asmoa dute. Dagoeneko, beraien produktuekin, hurrengo urteko udaberriko eskaintza prestatzen ari dira. Jostunak tailerlean diseinatuko dituzte bertako marka izango duten produktuak: «Ideia eta patrioiak bertan egingo dira, eta produktua dendatik, hemendik aterako, baina Bartzelonan fabrikatuko dira bertan daudelako tailerrak», dio.

Diseinatzaile bat ere beraiekin hasiko da lanean dendan egokituko duten gelan, eta aurrera begira ikastaroak emateko asmoa ere azaldu du.

### Saria ere badute

Ia 60 urte ditu Zugasti dendak Ibarra. Antxon Urrestarazu 17 urterekin hasi zen dendan lanean, eta ia 30 urte daramatza salmentari lotuta lanean. Iazko abenduan, urte guzti hauen lana sarituz, Gipuzkoako Merkataritza Ganberak, Merkataritza Jardueraren saria eman zien.

Ibarrako Euskal Herria kaleko 22. zenbakian dago, eta inork harremanetan jarri nahiko balu, 943 67 02 44 da telefono zenbakia.